



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/07/27

Bizkaiko Foru Aldundiak “lankidetzarako deia” egiten deutso Estaduko Gobernuari, bakarrik dagozan adinbako atzerritarren arazoari aurre egin ahal izateko

Unai Rementeria Ahaldu Nagusiak, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatuak lagunduta, joan dan bagilaren 15ean Carmen Calvo Espainiako Gobernuako Presidenteordeari bialdu jakon gutunaren eukia zehaztu dau gaur goizean Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean. Gutun horretan, Ahaldu Nagusiak “gizarte eta administrazino moduan, adinbako horreek hartzeko eta gizarteratzeko egiten ari garen esfortzua” azaldu eban, eta baita “errealidade hori gure lurraldea gainditzen dauen ikuspegitik landu” beharra be. Argitu dauen moduan, idazki hori eratu barri dan Gobernu batek jaso dau, “lehenengo minututik gai hori mahai gainean euki daian”.

Desbardintasunaren, arazo “global eta historikoaren”, aurrean, Rementeriak azpimarratu dau Bizkaiko Lurraldean “asko ari garala laguntzen, eta ondo ari garala egiten”. “Gauzak ondo egin gura badoguz, ezin daikeguz gure Lurraldean daukaguzan gizarte eta giza arloko baliabideak musturreraino, guztiz agortu arte, eroan”, azpimarratu dau Ahaldu Nagusiak. Hori dala eta, “epe ertainean eta luzean gizarteratze prozesu horreetan arrakastea lortzeko” helburuagaz, bere eretxiz funtsezkoa da lurraldeen arteko banaketa “orekatua” egitea. Hori dala eta, gutun horren bitartez, foru erakundeak berretsi egin dau komunitade bakoxtarentzako kupoak ezarri beharra, bakarrik dagozan adinbako atzerritarrak (BDAA-MENA) jasoteko, eta, ganera, beharrezkoa dala “errealidade horri aurre egitegaitik laguntza ekonomikoak jasotea”.

Oposizinoko taldeak eta Foru Gobernu eusten dabenak bat etorri dira arazoaren izaera globala eta Lurraldearen eskumenak kontuan izanda behar egitearen garrantzia azpimarratzeko orduan.

Halanda be, Arantza Urkaregi diputatuak “Aldundiak orain arte emon dauena baino erantzun handiagoa behar dauen” arazoa dala adierazo dau, eta “adinbakoei arreta duina emon ahal izateko zentro gehiago zabaltzea edo plaza kopurua handitzea” eskatu dau, eta baita “bakotxaren beharrei erantzungo deutseen programa gehiago indarrean jartea” be. “Zuek protokoloak, legedia, umeen eskubideak ez zapaltzea eta gainerakoek hori betetea eskatzen badozue, egizue zuek be”, eskatu dau Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak. Gai horri jagokonez, zentroetan jente larregi dagola salatu dau.

Esku-hartze horreen ostean, Ahaldu Nagusiak barrero esan dau “persona guztiak babestuta dagozala”, eta “ratioak beteten dirala”. Horrez gain, argitu dauenez, “konponbidea ez da zentro gehiago, ezelango muga barik, zabaltzea”, alde batetik “konponbidea ez dalako persona bat eraikin batean sartzea” eta, bestetik, “baliabideak mugatuta dagozalako”.

Eduardo Andrés batzordekide popularrak, bere aldetik, Unai Rementeriaeren berbakaz ados dagola autortu dau. Horrez gain, azpimarratu dauenez, Bizkaira heltzen diran adinbako gehienek “17 eta 18 urte artean ditue”. Hori dala eta, Gizarteratze Sailaren inplikazio eta kontroleko neurri gehiago eskatu ditu.

Oposizionoko talde batzuen esku hartzea dala eta, Juan Otermin sozialistak esan dau “lotsagarria” dala “komunikabideetan jasoten dogun informazioa baino ez daukagun gai bati buruz berba egiten egotea”. Modu berean, ganerako erakundeakaz daukan koordinazioari eusteko eskatu deutso Foru Aldundiari, eta “duintasunaren bide horretatik jarraitzera” animau dau. “Ez dago gizakien eskubideen gantetik egon daiteken mugarik”, esan dau, amaitzeko. EAJ-PNV taldearen aldetik, Jon Sánchez batzordekideak esan dau penagarria dala taldeen artean gai horren inguruan egoan batasuna eta adostasuna galdu izana, eta berreskuratzeko eskaria egin dau. “Oso pozik egongo nintzateke gaur hemen dagozan alderdi politiko guztiek erantzukizunak idatziz eskatuko baleukiez eurak agintzen daben erkidegoetan”, adierazo dau. Horrez gain, “gaia gizatasunean eta errespetuan oinarrituta ulertzeko” Aldundia egiten ari dan esfortzua jarri dau balioan.

27/07/18

La Diputación Foral de Bizkaia realiza una “llamada a la colaboración” al Gobierno del Estado para abordar el problema de los menores extranjeros no acompañados

El Diputado General Unai Rementería, acompañado por la Diputada Foral de Acción Social Isabel Sánchez Robles, ha detallado esta mañana ante la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia el contenido de la carta que desde la institución foral enviaron el pasado 15 de junio a la Vicepresidenta del Gobierno de España, Carmen Calvo. Una misiva en la que el Diputado General trasladó “el esfuerzo que estamos haciendo como sociedad y administración en la acogida y la inclusión social de estos menores” y la necesidad de “abordar esta realidad desde un enfoque que va más allá de nuestro territorio”. Este escrito ha ido a parar, tal y como ha matizado, a un Gobierno recién constituido “para que esta cuestión la tuvieran encima de la mesa desde el minuto uno”.

Ante un problema “global e histórico” como es el de la desigualdad, Rementería ha remarcado que en el Territorio de Bizkaia “estamos ayudando mucho y lo estamos haciendo bien”. “Si queremos hacer las cosas bien no podemos llevar a la extenuación los resortes sociales y humanos que tenemos en nuestro Territorio”, ha subrayado el Diputado General. Es por ello por lo que, con el objetivo de “tener éxito en estos procesos de inclusión a medio y largo plazo”, ve fundamental trabajar en una distribución territorial “equilibrada”. Por esta razón a través de esa carta la institución foral ha reiterado la necesidad de establecer cupos por comunidades para el acogimiento de menores extranjeros no acompañados (MENAs), además de “recibir ayudas económicas para hacer frente a esta realidad”.

Tanto los grupos de la oposición como los que sustentan al Gobierno Foral han coincidido en que el carácter global del problema y en la importancia de trabajar de acuerdo a las competencias del Territorio.

No obstante la apoderada Arantza Urkaregi ha manifestado que éste se trata de un problema que “exige una respuesta por parte de la Diputación mayor que la que se está dando” y ha instado a “abrir más centros o ampliar las plazas para atender a los menores en condiciones de dignidad” así como “poner en práctica más programas que respondan a las necesidades de cada uno”. “Si ustedes piden que se cumplan con los protocolos, con la legislación, que no se vulneren los derechos de la infancia y que el resto cumplan, háganlo también ustedes”, ha instado la apoderada de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga. En este sentido ha denunciado una sobreocupación de los centros.

Ante estas intervenciones, el Diputado General ha reiterado que “todas las personas están protegidas” y que “se cumplen los ratios”. Asimismo ha aclarado que “la solución no está en abrir más centros de manera ilimitada” puesto que, por un lado, “la solución no es meter en un edificio a una persona” y, por otro lado, “no hay recursos ilimitados”.

Por su parte el apoderado popular Eduardo Andrés ha admitido estar de acuerdo con las palabras de Unai Rementería. Asimismo ha hecho hincapié en que la mayoría de los y las menores que llegan a Bizkaia “tienen entre 17 y 18 años”, y este sentido ha pedido mayor implicación por parte del Departamento de Inclusión Social y más medidas de control.

En referencia a la intervención de algunos grupos de la oposición, el socialista Juan Otermin, ha calificado como “vergonzoso” el hecho de que “hoy se haya tratado en este asunto un tema del que solo tenemos información por los medios”. De igual manera ha animado a la Diputación Foral a mantener la coordinación con el resto de instituciones y ha animado “a seguir por este camino de dignidad”. “No hay frontera frente al derecho humano”, ha concluido. Por parte del PNV, el apoderado Jon Sánchez ha lamentado la pérdida de unidad y consenso entre los grupos en torno a este tema y ha instado a recuperarlo. “Me encantaría que los partidos políticos que están hoy aquí demandasen por escrito responsabilidades a aquellas comunidades en las que gobiernan”, ha manifestado. Asimismo ha puesto en valor el esfuerzo “de entender en clave de humanidad y de respeto” de la Diputación.